

Antxiñako fotografixia

Bertsolari-txapelketak Oñatin

Pasau barri diran bi hillabete honeittan Oñatin ospatu dan **herri maillako VI. bertsolari-txapelketiak** jente asko mugidu eta karriau dau: antolamendulanean, parte-hartzaile moduan edota publiko gisa. Bi kanporaketetan eta finalian giro bikaiña egon da eta entzule ugari. Pozgarrixena izan da, seguruenik, jardunaldi horreittara zenbat gazte, neska eta mutil, inguratu dan ikustia. Halako girua sortu ahal izateko, Oñatiko bertso-eskoliak urte askuan egindako lanaren arrastua agiri da. Ezta meritutu makala.

Baiña gaurkuan, sail honi dagokixon lez, lehentxuagoko kontuak gogoratuko dotsuegu. Historixa apur bat egingo dogu. Aurretik be bertsolarixak izan ziran Oñatin: famaue-nak **Graziano Anduaga**, *Gesaltzako aittona*, eta **Felix Bikuña**, Larrañako *Auzetxekua*, izango ziran. Dana dala, 1960ko hamarkadan egon zan susperraldi interesgarrixa hemen. **Hiru txapelketa oñatiar antolatu ziran urte gutxiren buruan**. Daturik gehixenak lehenenguearenak geratu xaku, **Felipe Jausorok** Zeruko Argia astekarixan idatzittako kronikiari eskerak.

Lehenengo herri-txapelketa hori 1965eko bagillaren (ekaiñaren) 20xan egin zan Garoa zinean. Eliziaren babespeian bideratutako jaialdixa izan zan, orduko beste hainbat ekiñaldi letxe. Luistarren kongregaziñuak antolatu eben. Zortzi bertsolari txantxikuar aurkeztu ziran: **Rufino Agirre**, Zubillagako *Alkortakua*; **Joxe Mari Anduaga**, Arantzazuko *Gesaltzaku*; **Joxe eta Juan Arkauz**, Garagaltzako *Kamaramuño*ko *anaiak*; **Bernabe Belategi**, Olabarrietako *Tiruena*; **Reyes Bikuña**, Larrañako *Erbiñenekua*; **Jexus Igartua**, Olabarrietako *Jurgiñenekua*; eta **Andres Kortabarria**, Uribarriko *Gogordokua*: irabazle Rufino Agirre suertau zan, **Joxe Mari Anduaga** bigarren eta bixoi emun osten txapel eta kopa bana.

Beste bi txapelketa be ospatu ziran hamarkada horretan: bata 1968ko ilbaltzaren 14an eta 1969ko abenduaren 21an hurrengua. **Bixak irabazi zittuan Andres Kortabarria Gogordok**. Argazkixan bere jaixotetxiaren aurrian agerketan xaku Andres, txapela jantzitta eta bi urte horreittan jasotako kopekin: bi lehenengo sari eta hirugarrena 1968ko bertsorik onenari emundakua. Urte askoren hutsuniaren ondoren, **2007xan** antolatu eben Oñatiko bertso-eskoliak **IV. lehiaketia**; **2008xan izan zan V.a**; eta aurten, **2012xan, VI.a**. Irabazliak, hurrenez hurren, **Josu Igartua**, **Joseba Lasagabaster** eta **Maidar Arregi** izan ziran.



J. E.

Argazkixa Begoña Urreta, Andresen emaztiaren bidez lortu dogu. Argibidiak, berriz, Jexus Igartuak, Maixabel Kortabarriak eta Begoñak berak eskuratu doskue. Milla esker danoiri!